

## KUTXABANK-UNED BIZKAIA SARIAK 2021-2022 IKASTURTEKO ESPEDIENTE AKADEMIKO ONENEI

---

UNED Bizkaia-k ahaleginaren eta errendimendu akademikoaren kultura sustatzen du, 2020-2021 ikasturtean ikasketak bikainen egin dituzten ikasleak aintzatetsiz eta bereiziz.

Kutxabankekin lankidetzan, UNED Bizkaia-k 7 saritarako deialdia egin du, 2021-2022 ikasturtean graduko titulazioa lortu duten edo 25 urtetik gorakoentzako sarbide-ikastaroa gainditu duten ikasleak saritzeko.

Deialdi honek oinarri hauek izango ditu:

### 1.-BALDINTZAK

#### **Graduko tituludunen sariak**

2021-2022 ikasturtean titulazioa lortu duten UNED Bizkaia-ko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta titulazio horretako ikasketa-planeko kredituen edo irakasgaien ehuneko hirurogeita hamar (%70), gutxienez, egin eta gainditu badute, eta, gutxienez, 7ko batez besteko nota lortu badute.

#### **25 urtetik gorakoentzako sarbide ikastaroko sariak**

UNED Bizkaia-n matrikulatutako ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta 2021-2022 ikasturtean 25 urtetik gorakoentzako sarbide-ikastaroa gainditu badute, gutxienez 7ko batez besteko notarekin, betiere 2022-2023 ikasturtean UNEDen graduko titulazio batean matrikulatu badira.

### 2.- HORNIDURA

A) **5** sari, MILA EUROKIN (1.000 €), graduko tituludunentzat, jakintza-adarren arabera banatuta, honela:

- Arte eta Giza Zientzietako graduak
- Zientzietako graduak
- Osasun Zientzietako graduak
- Gizarte eta Lege Zientzietako graduak
- Ingeniaritzako graduak

B) **2 sari, BOSTEHUN EUROKIN (500 €), 25 urtetik gorakoentzako sarbide-ikastaroa** gainditu duten ikasleentzat, ibilbideen arabera banatuta, fase espezifikoan egindako irakasgaien arabera:

- Ibilbidea: Artea eta Giza Zientziak
- Ibilbideak: Zientziak  
Osasun Zientziak  
Zientzia Juridiko eta Sozialak  
Ingeniaritza

### 3.- ESKAERAREN FORMALIZAZIOA

Interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute, espedientearen kopiarekin eta nortasun agiriaren fotokopiarekin batera, helbide elektronikoko honetara: [secretaria@portugalete.uned.es](mailto:secretaria@portugalete.uned.es), mezuaren gaiari "Kutxabank-UNED Bizkaia Sariak" adieraziz

Eskabideak aurkezteko epea **urriaren 31tik azaroaren 14ra** bitartekoa izango da.

2

### 4.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

#### Graduko tituludunen sariak

Ikasketa espedienteko batez besteko nota onena lortu duten ikasleei emango zaizkie sariak. Berdinketa izanez gero, ikasturte gutxien egin dituen ikaslearen alde ebatziko da. Berdinketak badirau, kontuan hartuko da lehiatzaileek ikasketak egin dituzten bitartean duten lan eta familia egoera. Horretarako, hautagaiei behar diren informazio eta egiaztatgiri osagarriak eskatu ahalko zaizkie.

#### 25 urtetik gorakoentzako sarbide ikastaroa

Kalifikazio orokorrean puntuaziorik onena lortu duten ikasleei emango zaizkie sariak. Berdinketa izanez gero, fase orokorrean lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan. Berdinketak badirau, kontuan hartuko da lehiatzaileek ikasturtean duten lan eta familia egoera. Horretarako, hautagaiei behar diren informazio eta egiaztatgiri osagarriak eskatu ahalko zaizkie.

## 5.- EBALUAZIO-BATZORDEA

Ebaluazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Presidentea: UNED Bizkaia-ko zuzendaria
- Kideak: Kutxabankek Zuzendaritza Batzordean duen ordezkaria, irakasle tutoreen ordezkaria eta ikasleen ordezkaria
- Idazkaria: UNED Bizkaia-ko idazkaria

## 6.- BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA

Ebaluazio Batzordeak, espediente akademikoak baloratzeko prozesua amaitu ondoren, emandako sarien behin-behineko zerrenda argitaratuko du webgunean.

Sarien behin-behineko esleipenarekin ados ez dauden lehiakideek 10 egun balioduneko epea izango dute, argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak ebaluazio-batzordeari aurkeztu beharko dizkiote.

## 7.- EPAIA

Erreklamazioak ebatzi ondoren, sarien eta ikasle sarituen behin betiko zerrenda argitaratuko da, ebaluazio-batzordeak onartutakoa. Saritutako ikasleek, gainera, dagokien sariaren jakinarazpen pertsonala jasoko dute.

3

## 8.- SARIAK EMATEA

Sariak pertsonalki banatuko dira, justifikatutako arrazoirik ezean, ekitaldi akademiko publiko batean, eta ekitaldia noiz egingo den behar bezala jakinaraziko da.

## 9.- FISKALITATEA

Ematen diren sarien zenbateko gordinari lege ezarritako atxikipen fiskala aplikatuko zaio.

## 10.-GENERO-BERDINTASUNA

Genero-berdintasunari buruz onartu dugun balioaren arabera, deialdi honetan genero maskulinoan egiten diren izendapen guztiak, termino generikoekin ordezkatu ez direnean, genero femeninoan egiten direla ulertuko da.

Portugalete, 2022ko urriaren 28an